

Askotariko kontzertuak

Asteburuak Maiatzaren Leheneko sasi-asteburuan izango duenez segida, datozen egunak kontzertuz gainezka izango ditugu. Molde eta aho ezberdinetara zuzenduak egongo dira egunotan Euskal Herriko aretoetan egingo diren jaialdiak. Batzuk milaka laguntzat prestatuak egongo dira, eta beste batzuk gutxi batzuen gutizi izango dira.

antena jarrita

Lacaza taldeak bere lehenengo diskoa kalean du jada. Izen horrekin oso ezagunak ez diren arren, Kaos Etiliko taldea dela esanda errazago ulertuko duzue denok. Kaos Etilikok lan berria prest zuela, lege arazok izan ziren tartean, eta ondorioz, taldeari izena aldatu behar izan zioten. Zigor eta Kepa Kaos Etilikoko kide ohiek Joseba (Los Padrinos) eta Dieguillo (Extremoduro eta Cicatriz) izan dituzte lagun. *Fresko fresku* izena du diskoak, eta lehen aldiz euskaraz egin dute kantu bat, *Entzun maite* herri abestiaren bertsioak.

Albistea erabat egiaztatuta ez dagoen arren, dirudienez **Layne Staley** kantaria hilik aurkitu dute Seattlego bere etxean. Dirudienez, Alice in Chains rock taldeko kide izanak bere buruaz beste egin du. Jazoeren arabera, beraz, Kurt Cobain heriotzaren antz handia du, Staley ere azken boladan drogak utzi nahian baitzebil.

Gipuzkoako Foru Aldundiak beste urte batez **Gaztemaniak!** maketa lehiaketarako deialdia egin du. Lanak aurkezteko epea apirilaren 30ean amaituko da. Saritutako taldeak gain, epaimahaiak hamabost talde aukeratu ditu, eta horiekin CD bat kaleratu du. Entzuleek ere beren iritzia emateko aukera izango dute Internet bidez: www.gaztemaniak.net/ musikagi.



Chris Spedding (bihar, Bergarako jam aretoan)

Chris Spedding gitarrista ingelesak azken hiru hamarkadetako rock'n'rollaren barruan bete duen lekua ez da nolana hiko. Bakarlarri gisa, eta batez ere, beste artista batzuentzat lanean, berezko estiloa erakutsi du beti Speddingek, eta horrek gitarrista maitatua eta laudatua izatera eraman du.

Gene Vincent, Eddie Cochran eta Elvis Presleyren eraginpean hasi zen jotzen Spedding, baina berehala jazzera eta bluesa hurbildu zen. Hala, 60ko hamarkadaren amaieran, *Melody Maker* aldizkariak estilo horietan Erresuma Batuan zegoen bigarren gitarrista onena izendatu zuen Spedding. Jack Bruce (Cream) *Songs for a Taylor* diskoan parte hartu zuen garai hartan, eta horrekin batera, bakarkako bideari ere orduan eutsi zion. Hala, *Songs without words* (70), *Backwoods progression* (71) eta *Only lick I know* (72) diskoak kaleratu zituen. Musikari ezagunentzat ere hasi zen lanean (Elton John, Nilsson), eta The Sharks taldea sortu bazuen ere, hurrengo urteetan ere hori izan zen bere zeregin nagusia. Harrezkerotik, John Cale, Brian Ferry, Roger Daltrey, Elliott Murphy, Pretenders, Willy DeVille eta Robert Gordonekin egin du lan besteak beste. Orain bere taldearekin dator Euskal Herrira, eta haren aurretik Nuevo Catecismo Catolico igoko da Jameko taulagainera.



The Fleshtones (larunbatean, Bilboko Azkena aretoan)

The Fleshtones taldeak segitzen du huts egin gabe. Euskal Herrian jarraitzaile ugari ditu New Yorkeko taldearen rock & roll freskoak, eta azken urteotan ohiko bisitariak bihurtu zaizkigu Peter Zarella, Keith Streng eta bere lagunak. Duela bi urte eskas Bergarako Jam aretoan kontzertu bikaina eman eta gero, hemen ditugu osterare, beharrezkoa dugun soul, garage, pop eta rock & roll dosia eskaintzeko prest.

Zarembak (ahotsa eta teklatura) eta Streng (gitarra) 1976an sortu zuten taldea, eta 50eko zein 60ko hamarkadetako rock & rolla eta garagea aldarrikatzen zuten arren, erraz egokitu ziren garaiko underground girora. Orditik hona diskoak grabatzen, eta leku batean eta bestean kontzertuak ematen pasatu ditu urteak taldeak; inoiz ere huts egin gabe. Oraingoan disko berria (*Solid gold sound*) dakarte besapean.



Rinoçerôse (asteartean, Bergarako Jam aretoan)

Dantzarako musika eta rocka arrakasta handiarekin uztartu ditu Rinoçerôse bikote frantziarrak. Jean-Philippe eta Patou rock taldeetan aritu ziren 80ko hamarkadaren amaieran, baina garai hartan Erresuma Batua astindu zuen acid house mugimendua eragin zuzena izan zuen biengan, eta rocka house-aren eta technoaren jantziekin egiteko erabakia hartu zuten. Klubetan entzuten zituzten groove soinuak gitarren bitartez sortu nahi zituzten, eta hala sortu zuten Rinoçerôse. Gero, flautajoleak, perkusiojoleak eta baxujoleak gehitu dituzte taldera zuzeneko talde bat izan asmoz. *Music kills me*, taldeak argitaratu duen azken lana, techno-rockez, acid-jazzez, omenaldiz (The Cure, The Rolling Stones...) eta disco erritmoz beteriko lana da.

Ratos de Porao (asteartean, Bilboko Kafe Antzokian)

Sepulturarekin batera, Brasilgo basapizti handiena da ziur aski Ratos de Porao. Punk, hardcore eta metal basatienaren ordezkari, Ratos de Porao Jello Biafra (Dead

Kennedys) edota Jerry Onlyren (Misfits) babesas jaso du urte hauetan guztietan, eta Sao Paulon jaio zen proiektua munduko beste herrialde batzuetara zabaltzeko aukera eman diote. Taldearen azkenengo diskoa *Guerra civil canibal* deitzen da, eta Ratosen soinua puri-puritan azaleratzen du.



Kevin K Band (asteazkenean, Bergarako gaztetxean)

J.A. Areta *Juxe* argazkilariak Bergarako gaztetxean azken hilabetean erakusgai izan duen argazki erakusketari amaiera emateko, rock & roll festa ikaragarria prestatu dute. New Yorketik zuzenean, Johnny Thundersen eta Sylvain Sylvainen seme kuttunena izango litzatekeen abeslari bat dator: Kevin K.

70eko hamarkadaren amaieran New Yorken piztu zen mugimenduan hazi zen Kevin K, eta Aunt Helen and The Toys bezalako taldeekin garaiko artista esanguratsuenentzat kontzertuak irekitzeko aukera izan zuen. Hala, Pat Benatar, The Romantics, Ramones, Stiv Batorsen Dead Boys eta Johnny Thundersen taulakide izan zen Kevin K. Gerora Lone Cowboys taldea sortu zuen eta, 90ko hamarkadaren hasieran Road Vultures taldearekin aritu zen. Azken urteotan talde bat sortu du bere inguruan, eta Thundersen musikaren eragin nabarmena duen rock & roll bizia egiten dihardu.



Skatalites (asteazkenean, Bergarako Jam aretoan)

Ska musikaren talde mitikoena izango da datorren astean Euskal Herrian: The Skatalites. 1964an egin zuen lehengo agerpena taldeak Jamaikako Kingston hirian, eta urtebete geroago, taldekideek bide ezberdinak hartuak zituzten arren, hurrengo urteetan behin baino gehiagotan elkartu eta banandu dira. Thomas McCook, Roland Alphonso, Don Drummond, Lester Sterling, Johnny Dizzy Moore, Lloyd Knibbs, Jerome Haines eta Jackie Mittoo izan ziren Skatalites izenarekin Jamaikako musika 60ko hamarkadaren erdialdean irauli zutenak. Urtebete baino ez zuten elkarrekin egin, baina Jamaikako musikaren etorkizuna erabat baldintzatu zuten. 1975ean berriro elkartu ziren, baina handik aurrera, taldekideen osasun egoerak taldearen beraren egoera gidatu zuen. Nolanahi ere, azken urteotan hainbat disko argitaratu ditu taldeak, eta Johnny Dizzy Moore jatorrizko taldekidea taldera itzuli da,

San Vicente, 2 48001 Bilbo - Tel. 94 424 46 25 Iparragirre 10, 48700 Ondarroa Tel. 94 683 41 41	
25 osteguna 20:30 Guztuz Arteen Euskal Presoak Euskal Herrira jaia • Irrintziak • Xabier Amuriza • GOZATEGI Sarrera: 5 € • GERNIKAKO BOMBARDAKETAREN URTEURRENA Iluntzeko 20:00 etan. Doako sarrera. • BERTSO AFARIA Sarrera: 15 € Bizkaiko Trapelketarako Bilboaldetako Kanporaketa saioa	BETAGARRI • 26 ostirala 23:00 Au: 5,00 € Txart: 6,00 € LAGUNAK: 3,00 €
28 igandea 16:30 18:30 • OLGETAN haur jaia "Takolo, Pirritx eta Porrotx Pailasoak" Sarrera: 5,00 € LAGUNAK: 2,50 €	OLGETAN haur jaia • 28 ostirala 17:00 "Kiki, Koko, Moko eta Flax Pailasoak" Sarrera: 5,00 €
30 asteartea 22:00 Au: 11,00 € Txart: 13,00 €	ANTZERKIOLA • 30 asteartea 20:30 • IMAGINARIOA Sarrera: 5,00 € LAGUNAK: 2,50 € Ska-Reggae Gaua • THE CYPRINIANS • AKATZ • AKATZ • AKATZ Ostirala 23:00 Au: 5,00 € Txart: 6,00 € LAGUNAK: 3,00 €
www.kafeantzokia.com	